


BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



BIZKAIA ZUBIA BERRERAKitZEN GERRAREN OSTEAN

1937ko ekainaren 16ko goizaldean, Bilboko itsasadarra-ren gaineko Zubi Esekia -Bizkaia Zubia- lehertu egin zu-ten tropa frankistek, beste zubi batzuekin batera. Fran-kisten helburua zubia ez erabiltzeko moduan uztea zen, Bilbo laster eroriko zelakoan. Ekainaren 19an gertatu zen, hain justu. 1939ko abuztuan, Bizkaia Zubia berreraikitze-ko Juan Jose Aracil bide ingeniariaren proiektua onar-tu zuten. Lanek bi urte inguru iraun zuten eta zerbitzua 1941. urtearen erdialdean jarri zen berriz martxan. Iru-dian, Zubi Esekia berreraikitze-ko lanen une bat jasotzen da. Argazkia German Elorzak, Bilbon bizi zen argazkilari gasteiztarak, egin zuen.

German Elorza argazkilaritza munduan hasi zen Bilboko Kale Nagusiko Casa Lux argazkilaritza saltokiko Manuel Torcida argazkilaria- ren eskutik. Bere bakarkako ibilbidea tokiko hainbat komunikabidetan abiatu zen, eta 1932tik aurrera "La Tarde" egunkaria- ren plantillan sartu zen. Bilbo frankisten eskuetan erori ondoren, 1937an, Falangek ar-gitaratutako arratsaldeko "Hierro" egunkari- ra- ko lan egin zuen 1974. urtera arte. Urte horretan lanbidea utzi behar izan zuen Athletice- n partida bat jarraitzen ari zela izan zuen istripuaren ondorioz.